




Azalera handietako salmentak %2,9 handitu ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko otsaila. Indizea




Iturria: Eustat.

Azalera handietako eta elikadura kateetako salmentak %2,9 gehitu ziren otsailean, 2021eko hil berarekin alderatuta. Elikagai produktuen salmentek urte arteko jaitsiera izan zuten (-%5,2), baina gainerako produktuek osorik konpentsatu zuten (%24,3) beherakada hori. Aurtengo indizeak oraindik ez du pandemiaren aurreko maila berreskuratu.

EAEko txikizkako merkataritzak irudi ahula eskaini du

Txikizkako merkataritza indizea
Urte bakoitzeko otsaila




Iturria: INE.

INEn arabera, otsailean Euskadiko txikizkako merkataritzak atzera egin zuen eta %1,1eko beherakada izan zuen aurreko urtearen aldean. Horrela, gehiago urrundu da 2020an lortutako emaitzatik, azken hamaika urteetako mailarik altuenetik, alegia. Hala eta guztiz ere, estatistika horren arabera, enplegua %2,4 hazi zen sektorean.



Etxebizitzaren gaineko hipotekak hazi ziren urtarrilean

Etxebizitzaren gaineko hipotekak
Urte bakoitzeko urtarila




Iturria: INE.

Urtarrilean, Euskadin etxebizitzaren gaineko 1.690 hipoteka formalizatu ziren, hots, aurreko urtekoak baino %14,8 gehiago. Halaber, hipoteka berri horietan adostutako diru kopurua 2021ekoa baino %16,5 handiagoa izan zen. Hala ere, zifra horiek 2008-2013 aldiko erregistroetatik urrun daude oraindik.

Eraikuntzako kostuak nabarmen garestitu dira

Eraikuntzako kostuen indizea
Urte bakoitzeko otsaila



Iturria: Eustat.

Eraikuntzaren kostuen indizeak urte arteko %7,7ko igoera izan zuen otsailean. Horren ondorioz, indizea aurten serie historikoaren beste edozein otsailekoa baino askoz gorago kokatu da. Eskulana %5,8 garestitu zen eta lehengaiak, berriz, %8,3.